

HITZEN

bilduma

2022



s a r r e r a

Liburuki honetan jasotzen diren lanekin ezin garbiago erakusten da Deban arte sorkuntzarako dagoen grina eta gaitasuna. Oraingoan, pentsamenduak, bizipenak, konpartitu nahi diren horiek hitz edo irudi bihurtuta eskaintzen ditugu.

Amets egiteko aukera izan dute gaztetxoek istorioen bitartez, bidaiatzeko, gauza berriak ezagutzeko, azken finean, aberasteko. Baina ez hori bakarrik. Irudi batetik abiatuta ipuinak kontatu dizkigute, edota ipuinak entzun ondoren horiek ilustratuta bueltatu dizkigute. Argi utziz badagoela sormenerako grina gurean. Eta hitzen eta irudien arteak etorkizuna ziurtatuta duela erakutsiz. Esperantzarako oinarri sendoa, ezbairik gabe.

Ariketa zehatzagoa egin dute helduek, Debari buruzko haien gogoetak, ideiak, ametsak, umetako bizipenak eta beste 100 hitzetan jasota. Erronka polita eta maila ezin hobearekin gainditu dutena.

Horien guztien batura da orain aurkezten dizugun liburuki hau. Ehunka hitz, hamaika irudi. Guztiak ere gure herriarekiko maitasunetik egindakoak, sormena erabiliz eta gainontzekook goza dezagun oparituz. Eskerrik asko ekarpena egin duzuenoi eta gainontzekooi hauek irakurtzen eta ikusten goza dezazuen opa dizuet.

Gilen Garcia Boyra
Debako Alkatea



1. IPUINA ILUSTRATUA

BEGIAK ITXITA HEGAN

Izerdi-patsetan esnatu naiz gaur, ikara batean oihuka, negar-zotinka.

Munstro handi bat galdezka eta galdezka ari zitzaidan:

- Zer haiz hi? Zer haiz hi, kakanarru ziztrin hori?

- Ez dakiiiiiiiiit!!!

Orain hondartzan nago, eguzki goxotan ur ertzean, oinak fresko-fresko, itsaso bare-bareari begira.

Ur-azala ispilu xelebrea da gero!

Ni ote naiz, ba, hor dagoen umea?

Liso-liso dago nire ile kizkurra; beltz samarra, azal zuria; fin eta luze, izter biribilak; potolo, zakil txikia; eta ez dira urdinak begiak.

Barregura eman dit ni halako itxuran ikusteak, eta hondarretan etzan naiz, begiak itxita.

Ametsetan joan zait arin-arin burua: dantzan ari naiz, gona luze-zabal bat jantzita.

Jira eta bira nabil ni, besoak gora eta behera. Eta hegan dabil gona, uhinak eginez, jolasean.

Dantzan eta dantzan, ametsetan, zilarrezko eraztun batek dir-dir egiten dit eskuan.

Azazkalak, zuriz margotuta, lore txikiak dira airean.

Begiak ireki eta kaioak daude goian, zeruko ur urdinean igerian.

Irribarrez daude, pozik, orain ni bezala.

Oraindik ez naiz ausartzen gona jantzita kalera irteten.

Baina datorrela munstrotzarra, zer naizen galdetuz nire ametsak gaiztotzera.

Orain ez diot beldurrik. Orain badakit erantzuna.

Neska edo mutil, prakak, gona, eraztun edo biserarekin, begiak itxi eta pozez ikusten dudana, amets horiek guztiak naiz ni.

Idazlea: **Leire Arano**
Argitaratzailea: **Ibaizabal**





LUR ZANGITU LASA
(Lehen Saria - A MAILA: HH5)



ANE MANTZIZIDOR ARRATIBEL
(Bigarren Saria - A MAILA: HH5)



ANE IRAOLAGOITIA SUBINAS
(Lehen Saria - B MAILA: LH1)



ANDER FUENTES AGUIRRE
(Bigarren Saria - B MAILA: LH1)



LAIA EMAZABEL JIMENEZ
(Lehen Saria - D MAILA: LH2)



SARA AGIRREZABALA DUEÑAS
(Bigarren Saria - D MAILA: LH2)

2. ILUSTRAZIOA IPUIN BILAKATU



LEIRE SALABERRIA

ARRAIN GUZTIAK EZ DIRA BERDINAK

Bazen behin neska bat Eider deitzen zena, etxean arrain ontzi batean, lau arrain zituen: Berdetxo handiena eta arrain berdea, Urdintxo berdea baino txikiago eta arrain urdina, Horitxo urdina baino txikiago eta arrain horia. Azkenik Arroxito horia baino txikiago eta arrain arroxia. Eiderrek arrainak oso ondo zaintzen zituen, jaten ematen, arrain ontzia garbitzen, beraiekin jolasten...

Handik egun batzuetara Eiderrek beste arrain bat nahi izan zuen, leihotik ikusi zuen azoka zegoela eta bat-batean ideia bat bururatu zitzaion, bere gelako itsulapikoa hartu zuen eta diru pila bat zeukan. Pixka bat hartu eta azokara!

Berehala iritsi zen azokara, kriston gogoa zeukalako beste arrain bat edukitzeko. Arrain asko zeuden, Eiderrek txiki bat hartu zuen naranja eta beltz kolorekoa, Txikitxo izena ipini zion, oso txikia zelako. Etxera iritsi zenean bertan sartu zuen Txikito.

- Eider bazkaltzera! –esan zuen amak.

Eiderrek Txikito arrain-ontzian sartu zuen eta korrika joan zen sukaldera bazkaltzera.

Arrainak bitartean jolasten ibili ziren, Txikitxo alde batean zegoen lotsatuta, Berdetxo hurbildu zitzaion eta esan zion Txikitori:

- JA! JA! JA! A ze txikia!

Gero Urdintxo, Horitxo eta Arroxito hurbildu egin ziren Txikitxorena eta Txikitxori burla egin zion. Ondoren Eider etorri zen arraineri jaten ematera, janari guztia Berdetxo, Urdintxo, Horitxo eta Arroxitok jan zuten. Txikitxo, negarrez hasi zen harri baten barruan, Berdetxo hurbildu zitzaion burlatzera eta molestatzera. Une horretan Berdetxok esan zion

- Txikia, txikia, txikia! JA! JA! JA...

Hurrengo egunean Urdintxo, Horitxo eta Arroxito Txikitxoren lagun egin ziren, Txikitxo oso pozik zegoen lagunak zeuzkalako, Berdetxo hurbildu eta esan zuen:

- Txiki horren lagunak zarete?

Eta Urdintxok erantzun zion:

- Bai eta berdin du handi edo txiki.


Berdetxo haserre zegoen baina onartu zuen berdin dela handi edo txiki.

Berdetxoak esan zuen:

- Zuen lagun izan nahi dut.

Urdintxo eta hirurek onartu egin zuten. Handik aurrera denak lagunak izan ziren, bata bestea zaintzen laguntzen eta BURLA EGIN GABE! Hala bazan eta ez bazan sar dadila kalabazan eta ater dadila Debako plazan!

NOA GARTZIA ASTIGARRAGA
(Lehen Saria - D MAILA: LH3)



PATXI ETA AITOR

Duela urte batzuk, itsasoan bazen behin Patxi izeneko arrain bat. Oso lodia zen eta hortz zorrotzak zituen.

Egun batean Patxi gose zen eta arrainak jan nahi zituen baina arrainak izkutatu egiten ziren eta orduan Patxi triste ipini zen. Hurrengo egunean Patxi bere etxetik atera zen eta arrainek ikusi zutenean denak izkutatu egin ziren. Patxik garrasi egin zuen.

Orduan Aitor psikologoak esnatu zuen:

- Zer egiten duzu hemen? Alde nire etxetik!

Eta Aitorrek erantzun zion:

- Lasai, ni Aitor deitzen naiz eta zuri laguntzera nator.

Eta Patxik esan zuen:

- Zertan laguntzera? Nik ez dut behar laguntzarik –erantzun zion Patxik.

- Bai. Zuk gosea daukazu baina arrainak izkutatu egiten dira. Horregatik nator, zuri beste gauza bat jaten irakastera. Horrela beste arrainek ez dizute ihes egingo- erantzun zuen Aitorrek eta orduan Patxik erantzun zion:

- Bale , erakutsi beste gauza bat jaten.

Hortik aurrera Patxi eta Aitor lagunak izan ziren eta inor gehiago ez zen izkutatu bere beldur.

NARO

NAROA ALBIZU URAIN

(Bigarren Saria - D MAILA: LH3)

MARRAZOA ETA ARRRAIN IHESLARIA

Egun batean, Ozeano Atlantikoan, marrazo bat eta lau arrain txiki bizi ziren. Lau arrain horiek Tina, Fina, June eta Leo ziren. Anai-arrebak ziren eta aita eta ama hilda zituzten. Marrazoak lau arrainak jan nahi zituen eta arrainak egunero-egunero korrika eta korrika ibiltzen ziren. Tinak pentsatu zuen etxe bat eraikitzea eta horrela marrazoak ezingo zituen jan. Hor ibili ziren lan eta lan. Etxea eraikitzen bukatu zutenean, etxe barrura sartu ziren eta hor ibili ziren jolasten. Bat-batean norbait entzun zuten eta soinu hori kanpotik zetorren. Marrazoa zela konturatu zirenean, Leok esan zuen:

- Goazen hemendik bestela laister jan egingo gaitu!

- Ez, itxaron apur bat, entzun zer esaten duen –esan zuen Junek.

- Ama, aita asko maite zaituztet –esan zuen marrazoak negarrez. –Hemen bakarrik nago: janaririk gabe, etxerik gabe, ... eta zuek gabe. Asko botatzen zaituztet faltan.

- Entzun duzue zer esan duen? –galdetu zuen Finak.

-Bai –esan zuten hirurek batera.

- Orain badakit zer gertatzen zaion –esan zuen Leok –Ama eta aita hil egin zaizkiola.

Lau arrainak marrazoarengana joan ziren eta esan zioten:

- Asko sentitzen dugu –esan zuten laurek batera.

- Orain badakigu zer gertatzen zaizun eta normala da triste egotea –esan zuen Tinak. –Gu ere horrela egon ginen, egoera horretan. Lasai egon.

- Nahi al duzu gurekin bizitzera etorri? –galdetu zion Finak.
 - Baina nik zuekin oso gaizki portatu naiz, eta orain zuek niri eskeintzen didazue zuekin bizitzeko?– esan zuen marrazoak harrituta
 - Bai –esan zuten laurek batera.
 - Eskerrik asko! –esan zuen marrazoak pozik. –Goazen etxera lagunok!!
 - Bai!!
- Eta horrela bukatu da, marrazoaren eta arrain iheslarien istorioa.

IRABAZI ARTE !!!
LIDE AGIRREZABALA UNTZETABARRENETXEA
(Lehen Saria - E MAILA: LH4)

ARRAINTXO DENTISTAREN ARAZOAK

Bazen behin Ozeano Barearen erdian, “Arrain Txiki” deitutako arraintxo dentista.

Txikia, jatorra eta marra koloredunak zituen, ostadarra baino koloretsuagoak.

Itsasoan ere bazeuden beste arrain batzuk. Arrain larrosa, horia, urdina eta marrazo bat eta festa bat egin zuten. Marrazo handiak gozoko asko zituen, baita arrainak ere. Gozoki guztiak jan eta gero ez zituzten hortzak garbitu eta hurrengo egunean hasi ziren arrainak:

- Haaaa... hau mina hortzetakoa!

Arrain-txikik ikusi zituenean esan zien:

- Eee! Etorri nirekin.

Eta arrainek:

- Bai mesedez.

Eta han joan ziren arraintxoarekin presaka Hortz klinikara iritsi zirenean arrain larrosa eseri zen lehenengo eta Arrain-txiki bere aho barrura sartu zen hortzak ikusi eta sendatzeko, eta.... arrain larrosak nahi gabe jan egin zuen! Zortea eduki zuen arraintxoak ez zen hil, baina bere tripan gelditu, bai.

Beste arrainek esaten zioten harrituta eta haserre:

- Baina zer egin duzu!

Arraintxo dentista ordea oso azkarra zenez bere barrutik irten zen eta esan zuen:


- Ez naiz dentista izango!

Eta arrainak barrez hasi ziren:

- Ha, la, la.

Nik horrela ikusi nuen Ozeano Barean baina hala bazan edo ez bazan sar dadila kalabazan eta atera dadila Kantauri itsasoan.

ROBYN 24
MIKEL ARANBERRI LOPEZ
(Bigarren Saria - E MAILA: LH4)



3. IPUIN LEHIAKETA



HERENSUGEAREN KONDAIRA

Aspaldi-aspaldian, baten 12 urteko neskatxa bat Nagore izenekoa. Nagore herriko neska ederra, argiena eta garrantzitsuena zen, bere aita herriko Alkatea zelako. Deba izeneko herri baten bizi zen, lasai-lasai.

Egun batean, kaletik paseatzen ari zela, bere aitona hurbildu zitzaion eta hau esan zion:

- Kaixo Nagore! Kondaira bat kontatzea nahi?

- Bai aitona –erantzun zion Nagorek.

- Bueno ba. Duela 100 urte gutxi gorabehera, sorgin bat bizi zen herri honetan. Egun batean aspertuta zegoen eta San Juan suak hurrengo larunbatean zirela gogoratu zuen. Orduan sua sorgintzea bururatu zitzaion. San Juan suen eguna zen eta dena prest zeukan. Sua piztu, hitz magikoak esan eta sua herensuge bihurtu zen –kontatu zion aitonak.

- Aitona, eta hori egia da? –galdetu zuen Nagorek.

- Nagore badakizu kondairen gauza batzuk egia direla eta beste batzuk gezurrak. Nagore hemen dauzkat hitz magikoak. Nahi al dituzu? –erantzun aitonak.

- Bai-bai –esan zuen Nagorek.

- Hartu, eta ondo zaindu –esan zion aitonak.

- Eskerik asko aitona –erantzun zion Nagorek.

Nagorek herri osoa bildu zuen plazan, eta hau esan zuen:

- Bihar San Juan suak ospatzen dira eta hitz magiko hauek suari esaten badizkiogu herensuge bihurtuko da.


- Eta hori egia da? –galdetu zuen herritar batek.
- Ez dakit, baina saiatzarren ez da ezer gertatzen –rantzun zuen Nagorek.
- Eta zer lortuko dugu? –galdetu zuen beste herritar batek.
- Herria ospetsu bihurtzea –esan zuen Nagorek.

Orduan herri osoa San Juan suaren inguruan elkartu, hitz magikoak esan eta... sua herensuge bihurtu zen. Herria aldizkari guztietan agertu zen eta herri hartako lasaitasuna desagertzen hasi zen. Nagorek etxean pasatzen zuen egun osoa kalera atera gabe, lasai ibili ezin zelako. Nagorek bere aitari galdera hau egin zion:

- Aita, aldizkarietatik San Juan suetako albistea kendu dezakezu?
- Zergatik? –galdetu zuen aitak.
- Herri honetara lasaitasuna itzultzeko –erantzun zion Nagorek.
- Ezin dut kendu baina gezurra zela esan, bai –erantzun zuen aitak.
- Ados –esan zuen Nagorek.

Albistea gezurra zela esan zuten, eta herria lehen bezain lasaia izatera bueltatu zen. Nagorek gauzak egin aurretik bi aldiz pentsatzea erabaki zuen, horrelakorik berriro ez gertatzeko. Eta hala bazan edo ez bazan sar dadila kalabazan eta atera dadila Debako plazan

KAKA
LEIRE MENDIZABAL GORRITXO
 (Lehen Saria - F MAILA: LH5)



HOBE IKASTEA

Bazen behin Itziarren, 12 urteko lagun koadrila bat. Lagun koadrila horretan zeuden: Maren neska lotsatia baina alaia zen, asko gustatzen zitzaion dantzatzea, Jerak oso nota onak ateratzen zituen eta oso argia zen; Leireri asko gustatzen zitzaion animaliak eta kirola, Patxi mutil argia zen eta teknologia gustatzen zitzaion eta azkena, Telmori asko gustatzen zitzaizkion sare sozialak eta edozer gauzak nazka ematen zion.

Astelehen goiz batean, denak ikastola aurrean zeuden eta Patxik hau galdetu zuen:

- Zer egin duzue asteburuan?
- Ni nire baserrira joan naiz nire txakurraren urtebetetzea ospatzera –erantzun zuen Leirek.
- Ba ni asteburu osoa ikasten aritu naiz gaurko azterketan bikain bat ateratzeko – esan zuen Jerak.

Inor ez zen gogoratzen azterketa zutela Jera izan ezik, eta garrasika hasi ziren.

Geroxeago tranpa egitea bururatu zitzairen. Kontrola egiteko ordua iritsi zen eta Maren, Leire, Patxi eta Telmo besteei kopiatzen hasi ziren. Andereñoa susmatzen hasi zen eta beraiengana gerturatu zen. Maren, Leire, Patxi eta Telmo ez ziren konturatu andereñoa beraien ondoan zegoela eta kopiatzen jarraitu zuten.. Kontrola bukatzean, andereñoak, Maren, Leire, Patxi eta Telmori gelan gelditzeko esan zien eta beste ikasle denak jolastokira joan ziren. Andereñoak tranpa egiten kusi zituela esan zien Maren, Leire, Patxi eta Telmori, ikasleak beldurtuta zeudezen Andereñoak bronka bota bitartean Jera dena entzuten zegoen jolastokitik. Andereñoak hau esan zuen:

- Tranpa egin duzue zigor bat ipiniko dizuet.
- Zer zigor? –galdetu zuten Maren, Leire, Patxi eta Telmok.
- Asteburu bat basoan pasa beharko duzue ezer gabe –erantzun zuen andereñoak.
- Baina erroparekin ezta?
- Bai, lasai –erantzun zuen andereñoak.

Jarak entzuten jarraitzen zuen eta ez zuen nahi bere lagunak basoan arriskuan egotea. Orduan gelara sartu eta hau esan zuen:

- Inork ez ditu nire lagunak basoan asteburu bat egotera derrigortuko.
- Zer ari zara, Jera? Zu ikasle zintzoa zara –esan zuen andereñoak.
- Bai, zintzoa naiz, horregatik nahi diet lagundu –esan zuen Jerak.
- Ba, zigor bezala, zu ere beraiekin joan beharko zara basora.

Itziarko kuadrilla hori urduri-urduri zegoen eta azkenean ostirala iritsi zen eta arratsaldean Itziarko baso ilun batera abiatu ziren. Basora iristean lanean hasi ziren. Leirek egur eta hostorekin etxe txiki bat egin zuen gaua pasatzeko; Marenek animalien ile eta egurrarekin gitarra txiki bat egin zuen musika pixka bat egoteko; Jerak kalkuluekin animaliei tiro egiten zien gero jateko; Patxik lurrean bilatutako kable zaharrekin linterna batzuk egin zituen eta Telmo negarrez egon zen mobilik gabe zegoelako. Gaua han pasa zuten eta denak harro zeuden beraien buruez eta igandea poz-pezik pasa zuten denek batera.

Handik aurrera azterketetan tranparik ez egitea adostu zuten, eta asteburu hura oso ondo pasa zuten baso hartara askotan bueltatu ziren, baina ez zigor bezala.

MERAM
MAREN GAMARRA AIZPURUA
(Bigarren Saria - F MAILA: LH5)

LAINOAREN SEKRETUA

Eguzki izeneko neskato bat Txanpan Txiki herrian bizi. Eguzkik zortzi urte zituen eta oso alaia eta eskuzabala zen, beti laguntzeko prest zegoen.

Gau hartan Eguzki soinu ozen eta desatsegin batek esnatu zuen. Soinua gero eta ozenagoa zen eta logura joan zitzaion.

Ordu betez entzuten egon ondoren Eguzki ohartu zen soinu hori bere eraikinaren gaineko lainotik zetorrela. Baita ere jabetu zer norbaiten negarra zela eta laguntzea pentsatu zuen, baina ez zekien nola lortu lainoraino iristea. Gau osoa pentsatzen igaro ondoren bururatu zitzaion eskailera bat sortzea baina oraindik ez zekien ze materialekin egingo zuen.

Buruari bueltak eman eta gero gogoratu zen eskolan kontatu zieten ipuinean mutil batek irakurri zituen liburu guztiekin osatu zuela dorre erraldoi bat, zeruraino iristen zena.

Gauza bera egitea erabaki zuen.

Hurrengo goizean bere etxeko liburu guztiak hartu eta bere etxaldean zegoen basora joan zen eskailera sortzera.

Baina nahiz eta bere etxeko liburu guztiak erabili, oraindik erdia baino gehiago falta zitzaion lainoraino heltzeko.

Gosaltzera joan zen indarrak biltzeko. Orduan amak galdetu zion ea itzuli zuen liburutegitik hartu zuen liburua eta Eguzkiri izugarritzko ideia sortu zitzaion: liburutegiko liburu guztiak eskuratzea eta bere eskailera erraldoira gehitzea.

Goizean ideia hori martxan jartzeko, herriko liburutegira joan zen bere txartelarekin baina bi liburu besterik ez zituen lortu.

- Oraindik liburu asko falta zaizkit eta han goiko gizakia gero eta negar gehiago egiten ari da –pentsatu zuen bere baitan.

- Badakit, kartelak jarriko ditut herri guztian zehar liburuak eskatuz! –pentsatu zuen Eguzkik.

Egun bat igaro ondoren liburu pila bat lortu zuen: zaharrak, berriak, zabalak, txikiak, handiak... baina denak oso erabilgarriak eskailera erraldoi hori bukatzeko.

Bere eskailerara gehitu zituen lortutako liburu guztiak eta azkenean iritsi zen lainoraino.

Heldu zenean gaztelu handi eta eder bat ikusi zuen. Gaztelua kolore ezberdin askotakoa zen. Gazteluaren barrualdetik izugarritzko soinu ozena entzuten zen, norbaiten negarraren soinua.

Eguzki gaztelura hurbildu eta atea jo zuen. Pare bat aldiz jo ondoren erraldoi bat agertu zitzaion. Erraldoia iletsua, handia, zabala eta pisutsua zen.



Eguzki hasieran beldurtu egin zen baina gero jabetu zen negarrez zegoena bera zela.

Erraldoiarengana hurreratu eta esan zion:

- Nola duzu izena?

- Andres naiz –esan zion negar zotinka.

- Ni eguzki. Duela egun batzuk ohean lo nengoela zure negarrek esnatu ninduten eta laguntzera etorri naiz.

Erraldoia hitzik gabe geratu zen.

- Zer gertatzen zaizu hainbeste negar egiteko?

- Ni hemen nire emaztearekin bizi izan naiz bizitza osoan baina duela bost bat egun hil egin zen eta oso bakarrik sentitzen naiz gaztelu handi honetan.

Eguzkik egoera ikusita Andresekin geratzea erabaki zuen egun osoan gazteluan.

Andresi izugarritzko ideia iruditu zitzaion eta gazteluko txoko guztiak erakutsi zizkion bat bera ere ahaztu gabe.

Egun osoa pasa zuten gazteluan biraka baina iritsi zen elkarri agur esateko ordua.

- Andres, primeran pasa dut zurekin egun hau, bihar ere etorriko naiz. Hitz ematen dizut!

- Bai nik ere oso ongi pasa dut, eskerrik asko denagatik.

Hurrengo egunean Eguzki esnatu eta azkar-azkar joan zen gosaltzera denborarik galdu gabe. Gosaldu eta gero bere gela txukundu eta amarengan joan zen esanez:

- Ama, egun pasa noa mendira Izarorekin. Gauen bueltatuko naiz.

- Ongi da, ondo pasa!!!

Eguzki korrika joan zen bere etxearen atzealdean zegoen basoko liburuz osaturiko eskailerara.

Igo eta Andresen gazteluko atea jo zuen.

Berehala Andres atera zitzaion urduri eta esan zion:

- Eguzki goazen, ezin zara hemen geratu!

- Zergatik ez? Galdetu zion zalantzaz beterik Eguzkik.

- Lainoa erori egingo da eta biok hilko gara hemen.

- Ongi da zatoz, nire eskaileratik jaitsiko gera!

Azkar-azkar eskailera zegoen lekura joan ziren. Jaisten hasi ziren baina Andres pisutsuegia zenez liburu guztiak erortzen hasi ziren eta hauekin batera beraiek ere bai. Lurra jo baino pare bat metro lehenago Andresek bizkarrez jartzea lortu zuen eta Eguzki tripa gainean erortzea lortu zuen bera salbatuz.

Basoan entzun zuten zarata entzun ondoren, herritarrak korrika joan ziren hegazkin istripua zela pentsatuz, baina ikusi zutena guztiz desberdina zen. Hauen ustez Andresek Eguzkiri eraso egin zion eta salbatzaile moduan ikusi beharrean munstro baten moduan ikusi zuten. Eskopeta, aitzurra eta beste armen bila joan ziren eraso egiteko asmoz.

Eguzkik gertatzen ari zena ikusirik esan zuen:

- Geldi denok!! Andres oso erraldoi jatorra da. Salbatu egin nau eta ez dut utziko zuek minik egiterik!

- Salbatu egin zaitu? Guk uste genuen eraso egin zizula.

- Barkatu Andres, oso gaizki portatu gera zurekin. Ezer jakin gabe epaitu zaitugu erraldoi bat izategatik.

Andres etxerik gabe zegoenez herrian bizitzen geratu zen Eguzkirekin eta oso pozik bizi izan zen. Inoiz gehiago ez zuen bakardaderik sentitu.

IZARO ONEKA URKIA
(Lehen Saria - G MAILA: LH6)

BASOKO ITZALAK

Kaixo, nik Nola dut izena.

Nire ama frantsesa da eta nire aita italiarra.

Gurasoak banatuta daude, hilabete batean Frantzian bizi naiz eta bestea Italian.

Orain aitarekin nago, eta hemen, Italian lagun batzuk ditut: Gabriella, Nicoletta, Alessandro eta Bruno.

Lehenengo astean, oso nekatuta oheratu nintzen, atletismo karrera eduki nuelako.

Gauean, soinu eta mugimendu batzuk sentitu nituen leihoaren beste aldean, baina ziur aski nekearen irudipenak izango ziren.

Hurrengo gauean, pertsiana zabalik utzi nuen, ea han kanpoan zerbait ote zegoen ikusteko.

- Zer da hori? –galdetu nion nire buruari.

Egiten zuten soinua xuxurlak bezalakoak ziren, itzalak ziruditen eta altu eta finak ziren.

Ohetik altxa eta salto baten denak desagertu ziren.

Goizean hori guztia kontatu nien Nicoletta, Bruno Gabriella, eta Alessandrori, eta esan zuten:

- Zure lagunak gara, –Gabriellak –ez diguzu gezurrik esan behar.

- Baina, ez nago gezurretan –erantzun nion ulertu ezinik.

- Ez da ezer gertatzen iluntasunaren beldu bazara – esan zuen Alessandrok.

- Ez badidazue sinisten, gaur gauean etorri nire etxera lo egitera –esan nuen nik azkenean.

Denak ados zeuden, eta gau hartan nire etxera etorri ziren.

Afaltzeko pizza egin zuen nire aitak, gero logelara joan et lo-zakuak jari genituen.

Ordu batzuk pasa ziren, batzuk lokartuta zeuden baina ni ez.

Azkenean xuxurlak entzun nituen, eta esan nuen suabe-suabe:

- Benga esnatu, entzuten dituzue xuxurlak?

Bruno ikaratuta zegoen eta Gabriellari eskua super gogor heltzen ari zitzaion.

Nicolletari garraisi txiki bat atera zitzaion, eta itzal guztiak joan egin ziren.

- Baina zeren zain zaudete? Goazan, jarraitu egin behar ditugu! –esan zuen Alessandrok.

Itzalak basora zihoazen. Gu atzean geunden korrika eta saltoka, orduan esan zuen Brunok:

- Basora? Basora ez da inor joaten, eta beldurra ematen dit.



4. DEBA EHUN HITZETAN

TENERI GUTUNA

1975eko urtarrilaren 5a

Tene kide zintzoa,

Gudu-zelai zaigun Euskara Batu honetan pareko lubakian borrokatua zara. Alta, gogotsu ureztatu duzu, amultsu babestu, herri-hizkeren lorategi koloretsua, eta zinez zaitut konprenitzen. Hain zaitut estimutan, Tene, hainbeste miresten zure olerkari-uzta... ezen Euskaltzain Ohorezko izan zaitezen izendatu baitzaitut.

Bestelako zauri batzuk orbaintzeko desioz ere banatorkizu, erabat balioko ez duela jakitun. Gaurko gizonak lotsagorritzeko bekatu ere ez dela izan diost gogoak mailuka, neuri erraiak inarrosteko nahikoa, ordea.

Eusko Ikaskuntza, Euskaltzaindia, ehunka biltzar..., dena gizon. Non dira gure emaztekiak?

Munduak emanen ditu gizon hobeak,

Lurra berdintzen badu lanik euskal literaturaren goldeak.

Adeitasun suharrez,

Gabriel Aresti

NAGORE DORRONSORO AIZPURUA

1. saria (euskaraz)

ANDUTZ

(Auhenska **N**akarte, **D**eba, **U**rguri, **T**aupadek **Z**uregana)

Lo-suman harrapatu dute kresal usaina darien lehen eguzki-printzek. **Saltsamendi** bizkartzain, **Lizarreta** ezkutari, herriko zaldun eta zaindariari dagozkion loturak.

Itziarko **Beltzaranak** begi-keinu konplizea egin dio, gandorreko haitzak lotsagorritzeraino, ekiarekin lehian.

Alabaina, ez dezake Herria ikusi, haren oinetarantz zendu-bidean doazen uhinei goizero musuak igortzen badizkie ere, dion maitasuna haietan aingura dadin. Erbestea bizi du, deserria.

Arratsaldez, altxorrez mukuru datorren ibaiaren berri ekarri dio **Arno** jagole-kideak. Haren istorioak zein edertasuna handizkatzen dituela susmatu arren, ondamu nostalgikoz zaio bihotza uzkurto, begiak Sakonetarantz bildurik, betartea zimel, urre-izpi berantiarrek Kantauriko gesalarekin ehunduriko amaraunaren uberan -soarentzat ohantze, arimarentzat irriño-, ilunabarrak burutapen hitsen lausoa ostu dion arte.

XABIER ARIZNABARRETA OLARTE

2. saria (euskaraz)

MARIA BASCARAN ALBERDI (Eibar-Deba)

Maritxu pio-pio, emakume txikia, zaharra -hala ikusten nuen nik, behintzat-, beti mantala soinean zuela. Egurrezko gurditxoan txukun-txukun jarrita izaten zituen salgaiak, ortzadarrarenak motz gelditzen dira bertan zituen aho gozagarri guztien koloreak izendatzeko. Aukera ez zen edonolakoa, karamelu gogorrak, ahoko txistuarekin poliki-poliki desegiten zirenak edo hortzekin txiki-txiki egiten genituenak; bigunak ere baziren, hagineta itsatsita geratzen ziren eta mingaina behin eta berriz pasa arren, kostata lortzen genuen haietatik kentzea. Eta zaporeak, nola ez, ugari; gure egunerokoan inoiz probatu gabeak. Domeketan eta jai egunetan ezinbestekoa zen Maritxuri Lersundi kalean bisita egitea, gure ahoak goza zitzakeen zapore guztien iturri baitzen.

ARANTZA IRIONDO LAKA

Saritu gabeko herrikoen artean onena (euskaraz)



TOS DE POBRE

Cernió la “baya” toda la marea en el “kalatoki” de Urasandi;
el candil alumbraba escasas angulas en la caja.

Regresó a casa de madrugada. Tenía su mujer una tos implacable con los pobres;
necesitaría una bañera llena de angulas para curarla.

Dormidas dos horas, acudió al trabajo del astillero.
Diluviaba: mejor, las riadas abundan angulas.

En la hora más negra y fría de la noche dobló jornada.
La voz de la ría era invernal, agorera; su aliento, escarcha.

Salían angulas a racimos, y el entusiasmo menospreció
el hielo traicionero.

Al día siguiente encontraron la caja rebotante:
su viuda, sanaría.

RAFAEL BRAVO ARRIZABALAGA

1. saria (gaztelaniaz)

SOY UN FLYSCH

Soy como un flysch. Las olas me han ido aligerando de arenisca vana. Como esas facies venerables frente al mar, mi alma muestra con orgullo las rasas de las mareas de la vida. A estas alturas, sé contemplar impasible las noches de galerna y las mañanas de hermosísima calma.

Soy un flysch. Por eso he vuelto a Deba. Como ellos, acabaré vencido y me desplomaré sobre la arena minado por el cáncer que se ha apoderado de mí. Y lo haré con dignidad, altivo, paciente, dando testimonio al mundo, junto al mar, de la belleza del paso por la vida.

LUIS DAVID SAN JUAN PAJARES

2. saria (gaztelaniaz)

ESTRAGOS EN EL PÓRTICO

Cuando Catalina consintió en amores, tallé, con gratitud de amante y soberbia de artista, su rostro y el mío, en dos figuras del “Tímpano de la Visitación” que labraba en el pórtico.

Pero amores entre seductor taimado y doncella ingenua, están proscritos; y en cuanto ultimé la policromía de archivoltas y frisos, y cobré el trabajo, huí como un bandido.

Poco sospechaba, que pronto habría de volver a Deba exigido por el vicario de Santa María:

“Maese Juan de Acha, regrese al punto a componer los rostros de dos figuras de su trabajo, que una desalmada ha destrozado a martillazos”.

RAFAEL BRAVO ARRIZABALAGA

Saritu gabeko herrikoen artean onena (gaztelaniaz)





HITZEN bilduma 2022

